



Gorka ETXEBARRRIA DUEÑAS
Historialaria

Gauzak gertatzen zitzaizkion lehendakaria

Aurrekoan, «athleticismo extremo» konprobatzeko asmoarekin, kuriositateak jota, telebista piztea eta ETB1 aukeratzea bururatu zitzaidan. Non eta, gaua izanik, zirudien Athletici buruzko berriak bukatu zirela. Dokumental batekin egin nuen topo. Hagiografia bat zen hura. Santuen bizitza. Santua, kasu horretan, Ardanza lehendakaria zen, hil berri zena. Interesarekin ikusi nuen, bai baineuzkan txikitako gogorapenak, Ardanza lehendakari zenekoak. Oso urrunak, nik uste Baskoniak Europako Kopa irabazi zuenekoak, lehendakaria argazkietan agertzen baitzen jokalariekin batera. Pentsatu nuen Ardanzaren inguruan zer edo zer ikasteko parada nuela.

Deskubritu nuenak erabat harrituta utzi ninduen. Batetik, elkarrizketatu guztiak Ardanzaren oso hurbilekoak izan zirelako, beraz, laudorioek bata bestearen atzetik desfilatzen zuten. Politikoki ikuspegi ezberdina izan zezaketen bakar-rak Ramon Jauregi (gauza interesgarriren bat esaten zuen bakararra) eta Kepa Aulestia ziren (azken horrek interesgarria zen zerbait esan bazuen, dokumentaleko azken muntaketatik kanpo utzi zuten).

Ardanzaren diskurtsoak txunditu ninduen. Bat-batean, EGI-ko buruzagitzan zegoen. Bat-batean, Franco hil zen. Trantsizio osoa esaldi bakarrean laburbildu zen dokumentalean, Jauregiaren hitzetan: «Franco hil zen eta demokrazia eraikitzen ari ginen». Besterik ez, plaka tektonikoen mugimendua bezala prozesu politiko konplexu hura besterik gabe gertatu balitz bezala. Une batean, Ardanza Arrasateko alkate bihurtu zen. Baina, bere hitzetan, etengabe ika-mikan aritu zen beste alderdietako zinegotziekin. Berak ez omen zuen ulertzen zer dela eta ez zeuden denak ados. Ulertezintasun hori eskertzeko edo, Diputazioko presidente izendatu zuten ondoren, eta alderdi bakarreko gobernua osatu behar izan zuen.

Azaldu ezinezkoa zaion beste gertakari batean, arazoak omen zeuden orduko lehendakariaren eta EAJren artean, eta bera, nahi gabe, lehenda-

kari bihurtu zen. Lehendakari bezala ere, herritarrak oso haserre omen zeuden, alderdi politikoei ideia ezberdinak baitzituzten. Eztabaida demokratikoa eta bozketetan aurkako botoak jasotzea biziki arrotza egiten zitzaion Ardanzari, bere hitzetan. Gaiztoena, Carlos Garaikoetxea delako bat omen zen. EAEko arduradun politiko nagusi izanda ere, gauzak gertatzen ziren, Eusko Jaurlaritzarekin inongo harremanik ez omen zutenak: krisi ekonomikoa, langabezia eta ETaren biolentzia. Jainkoari laguntza eskatu ziola kontatzen du, bere lana aurrera eramateko. Ordu eta erdiko zintan ez dago garaiko testuinguruari egindako aipurik. Frankismoa berez bukatu zen, NATOren inguruan ez omen zen eztabaidarik gertatu, GALik ez da inon ageri...

Dokumentalaren bigarren zatian, lehendakariaren ekinbidea hasten da. Hark ETaren aurka oso gogor agertzea erabaki zuen, hark EEEko funtsak erabili zituen industria birmoldatzeko. Guggenheim egin zuten. Eta listo. Bukatu da. Lehendakari bikaina izan omen zen.

Ikusle bezala jaso nuena, aitzitik, agure harritua izan zen zinta guztian zehar, ez zuena ulertzen zergatik ez zegoen jende guztia EAJrekin ados une oro. Pena hil berri den lehendakariaren inguruan irudi hori transmititu nahi izatea telebista publikoak, ñabardurarik gabe, konplexutasunik gabe, interesik gabe. •



Jose Antonio Ardanza elkarrizketa batean ateratako argazkia. Luis JAUREGIALTZO | FOKU